

Martista

Martaren koadroak
ikusit ditut arratsaldean.
Estilo bitxia
estilo pertsonala.
Bakarra,
behintzat niretzat:
emagalduta oso polita da
bere koloreek...
gorriek eta marroiek
arima daukate.
Umeen begiradak
umea eta telebista,
hori izango al da
nirekin elkarrizketa
telefonikoa izan ondoren
margoztu al zuena?
Agian bai. Agian ez.
Espelikatu nion,
nola Naia tentelatzen
zuen telebistak.
agian bai, hori liteke!
agian bai, hortik jaio zen.

Gustatuko litzaidake
Koadro bat erostea.
Margozten imaginatu al izateko
Marta margolaria!
Marta artista: **Martista**.

Pintzelekin magia
egin dezakezulako,
errespetatzen zaitut.
Bernat zorionteagatik
eta bere ondoan egoteagatik
miresten zaitut.
Zarena izaten ausartzeagatik
maite zaitut.

Ez dut behar denbora
zure ondoan,
ulertzeko eta ikusteko
zein berezia zaren
zein ederra den
zure barruko mundua;
zure espirituan,
pintzelak erabiliz
isladatzen dena
eta gu ispiluok
iluminatzen gaituena.

Espero dut gure argiaren
berotasuna noiz edo noiz
zure gorputza aurkitzea
eta zure arima berotzea!

Eskerrik asko margozteagatik

